

BERRIGARA

10. zenbakia

JARDUN Elkarteak Bergara

1994, martxoak 4



Erreportaia:  **Bergararrak**
Txinan

Emakumeak ere prest

Autoberezi

FIAT

Alfa Romeo



ANTIGUA AUZOA ANTZUOLA (GIPUZKOA)


☎ 76 62 10 / 76 62 75

BERGARAKO HEZKUNTZA PUBLIKO

ESKOLAURRETIK UNIBERTSITATE EDOTA LANBIDE MUNDURA
ARTEKO ESKAINTZA OSOA (2-19 urte)



SAN MARTIN DE AGIRRE
ESKOLAURREA OHO (EGB). 2-14 urte.



MIGEL ALTUNA INSTITUTUA
IEE (REM) BATXILERGO TEKNIKOAK, LANBIDE
HEZIKETA MODULOAK. 14-19 urte.



BATXILERGO INSTITUTUA
BBB (BUP) eta UBI (COU). 14-18 urte.



ANGIOZARKO ESKOLA
ESKOLAURREA OHO (EGB). 2-14 urte.

• **D, B eta A EREDUAK:** D DENA EUSKARAZ / B ELEBIDUNA / A GAZTELERAZ, EUSKARA IRAKASGAI BAT IZANIK

• **ARLO GUZTIETAN ESPEZIALIZATUA:**

IRAKASLE ESPEZIALIZATUAK, LIZENTZIATUAK ETA TEKNIKARI PROFESIONALAK

• **BEHAR DEN GUZTIRAKO PRESTATUA ETA HORNITUA:**

LABORATEGIAK, LIBURUTEGIAK, INFORMATIKA-GELAK, IKUS-ENTZUTEKO GELAK, TAILERRAK...

AURREMATRIKULATZEKO EPEA:

SAN MARTIN IKASTETXEA: MARTXOAREN 1etik 15era. (2 URTEKO GELA, AURRESKOLA, OHO)

BATXILERGO INSTITUTUA ETA LANBIDE HEZKUNTZA ESKOLA: MAIATZAREN 3tik 14ra.

2 URTETIK 19 URTERA ARTEKO EUSKAL HEZKUNTZARAKO BIDEA

MATRIKULA DOHAINIK

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara.
 Tfnua eta faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:
 Barandun Elkartea
 Maisterreka, 13. 20.570 Bergara.
 Tf: 76 08 19

Zuzendaria:
 Gorka Elorza.

Erredakzioa:
 Mikeo Azkarate, Eduardo Mendibil eta
 Mikel Elkoroberezibar.

Buketazioa:
 Mikeo Azkarate eta Eduardo Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:
 Mikeo Azkarate eta Gorka Elorza.
 Tf: 76 03 97

Elaboratzaileak:
 Mikeo Angel Mikeo, Estepan Plazaola,
 Mikel Angel Elkoroberezibar, Juan Martin
 Lapuru, Josu Oregi, Maripi Laskurain,
 Mikel Alzelai, Ainhoa Lete, Jon Ander
 Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika
 Alastegi, Aitziber Aretxaga, Ainhoa
 Luña, Asier Madinabeitia, Josune Iñarra
 eta Ane Miren Goenaga.

Argazki laborategia:
 Pol Argazki Taldea.

Abonamendua eta marrazkiak:
 Mikel Rodriguez, Gorka Ortega, Jon
 Bengoa, Jose Martin Ezenarro
 eta Julian Ezenarro.

Abonamendua:
 Pol Argazki Taldea.

Abonamendua:
 3.500 ale.

Argazki laborategia:
 Pol Argazki Taldea.

Copyright: BERRIGARA

Argazki laborategia: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen
 argazkiaren adierazitako esanen eta iritzien
 erantzunkizunik.

Z E R B E R R I D A ?

JOSE MARI LARRAÑAGA

Miguel Altuna Institutoko zuzendaria

**- Bide onetik al do-
 az eskola berriko
 obrak?**

- Bai, epeak bete-
 tzen ari dira eta ez hori
 bakarrik, hasieran pen-
 tsatu baino hobeto do-
 azela esan daiteke.

**- Noiz bukatuko di-
 ra lanak?**

- Aurtengo abendu-
 rako edo amaituta
 egongo direla uste du-
 gu. Hala ere 1995-96
 ikasturtera arte ez gara
 ikastetxe berrira joan-
 go.

**- Ikasturte horre-
 tarako nobedadeak
 zeintzuk izango dira?**

- Ibargarai kalean
 dugun edifizioa txiki
 eta zaharkitua geratu
 zaigu eta hemen emat-
 en ditugun ikasgai bat-
 zuk Boni Laskurainera
 eramango ditugu. IEE



(REM) esate baterako,
 eskola berrian emango
 da. Bestalde, gaur egun
 gimnasia orduak Labe-
 garaieta Kiroldegian
 ematen ditugu eta ikas-
 tetxe berria zabaltzen
 dugunean bertan
 emango dugu gimnasia
 aretoa eraikiko da eta.

**- Eskola zaharra
 itxi egingo da?**

- Ez, LH.ko klaseak
 bertan emango dira

**"Abendurako eskola berria prest
 izango dugu"**

I T U R R I O N E T I K

**Kontsumitzaileei zuzendutako
 KIUB zerbitzua kolokan**

KIUB zerbitzua kentzeko erabakia aztertuko da
 asteleheneko Plenoan. Kontsumitzailearen
 Informaziorako Udal Bulegoa Udala eta UCEK
 (Unión de Consumidores De Euskadi)
 sinatutako hitzarmenari esker orain 10 urte
 martxan jarri zen eta Gobernu Batzordeak
 astelehenean hitzarmen hori ez prorrogatzea
 aztertu zuen, arrazoi ekonomikoak direla
 medio. Joan den urtean Alfonso Alonsok
 zuzentzen duen bulegoan (lehengo merkatu-
 an) 4 orduz egunean funtzionatzen du) 400
 kontsulta eta kexa inguru jaso ziren.

**ESAN
 DUTE**

"Bi eta bi lau direla
 argi genekien, eliz
 buruek kontrakoa esan
 arren"

SERAFIN ESNAOLA
"DON SERAFIN"
 Apaiza
 ETB

"Bergaran etxian
 jokatu genduala ez da
 ahaztu bihar, ikusi eñ
 biharko da zelan
 hartuko gaittuen
 eibartarrak"

VALEN MOÑUX
"Miserableak"
 muntaiaren eszena
 arduraduna
 EIBARKO
"ETA KITTO" ALDIZKARIA

"Uste dut *Kakatu*
berdea antzezlanaz asko
 kritikatu izan dela
 benetan nolakoa den
 jakin gabe, hau da,
 obra honetan 40
 pertsona baino
 gehiago gaude lanean,
 eta 40 pertsonarentzat
 lana aurkitzea ez da
 hain erreza. Barruan
 sartuta gaudenok asko
 borrokatu behar izan
 dugu hau lortzeko.
 Baina bestalde, ez da
 ahaztu behar talde
 independenteok
 [Tanttakan ere ari da
 Mireia] ere laguntzak
 behar ditugula"


MIREIA GABILONDO
 Aktorea
 ARRASATE PRESS



Aldizkari honek
 Bergarako Udalaren
 laguntza jaso du



Aldizkari honek
 Gipuzkoako Foru Aldundiaren
 laguntza jaso du



Aldizkari honek
 Euzko Jaurlaritzako Kultura
 sailaren laguntza jaso du



CAFE IRLANDES

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30.



MIRA QUIEN HABLA AHORA

Igandea: 11.30.



ORLANDO

Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ **Stephen Frears**

zinegileak Irlandako familia baten gorabeherak azaltzen dizkigu. Aita futbolzale eta garagardozele amorratua dugu; arazoak bere alaba haurdun geratzen denean hasiko dira... Valladoliden sarituta, *kafetxo* goxoa benetan.

▼▼ **Ubriacco** familian txakurrek ere (**Verónica Forqué** eta **Moncho Borrajoren** ahotsak)

zeresana daukate. Eta ez zaie arrazoa falta; *Mollyren* (**Kirstie Alley**) senarra (**John Travolta**) kanpoan da eta Mollyk nahiko lan dauka haurrak zaintzearekin.

▼▼ Bigarren aldiz iragarrita, *Emakumearen Astearen* barruan **Virginia Woolfen** nobelan oinarritutako filma ikus dezakegu. 400 urtetan zehar *Orlandok* (**Tilda Swinton**) gizon eta emakume bihurtzeko aukera izango du. Konparazioak egiteko aproposa.

Deiak

▼ **Santu Martirien Jaiak** Ostirala

txun.
• Larunbatean 7etan txikiteko trikitalariekin, 21.15etan herri-aldia Txuringon (txartelak bertan sartu gai 2.000 pta. tan) eta ondoren dantza txaldia Imuntzo eta Belokirekin.
• Igandean 11etan Herri Martirien Jaiak eta biatloia 11.30etan.

▼ **Odol ematea** asteazkenean 19.00etan Seminarioko baxuetan.


▼ **Emakume taldeen** eskulana Kultur Etxean.

▼ **Gizarte Ongizate Batzordearen** argazki lehiaketako lana martxoaren 5etik 13ra Pol-Polen.

▼ **Rama de que..** eta **Una leña** musika taldeak gaur 11etan Pol-Polen. Eguzkik Maltzaga-Urtan autopistaren kontra antolatuta.

Ogia

▼ **Igandea 6:** Konde.



GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Larunbata 5:** Mozos.
- ▼ **Igandea 6:** Mozos.
- ▼ **Astelehena 7:** Camacho.
- ▼ **Asteartea 8:** Puy.
- ▼ **Asteazkena 9:** Guallar.
- ▼ **Osteguna 10:** Estella.
- ▼ **Ostirala 11:** Mozos.



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

BEDEREN 1

ANTZERKIA

Talde donostiarrak "Argirik piztu gabe" muntaia antzeztuko du Bergaran

IGANDEAN 19.00etan ZABALOTEGIKO ARETOAN

Emakumearen Astearen barruan, igandean Bederen-1 antzerki taldeak "Argirik piztu gabe" antzezlana eskeiniko du arratsaldeko 7etan Zabalotegiko aretoan.

Bederen-1 talde gipuzkoarrak "gure gobernuak, Europako Elkartearen laguntzaz, bultzatutako sexualitate kanpaina bat" aurkezten digu Xabier Agirre aktorearen hitzetan. Berak dioen moduan, "sexu heziketa aitzakitzat hartuz, lana konferentzia baten moduan eratuta dago eta bertan euskaldunok ditugun sexu arazoei buruzko ikuspegia ematen saiatu gara, beti ere umorea izanik ardatza".

Umorezko klabe hori, esate baterako, HIESa aztertzean nabarmentzen da; "bai, HIESa Drakularen pertsonaiarekin esplikatzeko dugu; Drakulak odola behar du bizitzeko baina birusarekin kutsatutako odolak ara-



Maribi Arrieta eta Xabier Agirrek lau pertsonaia lantzen dituzte.

zo ugari ekartzen dizkio aurrera egiteko" dio Agirrek.

1984an sortu zen Bederen-1 antzerki taldea-

ren aurreko lanen artean Erreleboa (Gabriel Celaya, 1988), Jaques eta nagusia (Milan Kundera, 1990) edota Desioaren pontxea (Michael Ende, 1991) aipatu daitezke.

"Argirik piztu gabe", berriz, iaz estreinatu zen eta jatorrizko ideia eta testua Patxi Santamaria zuzendariarenak izan dira eta gidoia, berriz, Beatriz Zabalondo, J.L.

Aranguren, "Txiliku" eta Bederen-1 taldeak berak landu dute. Laneko hizlari-aktoreak, berriz, Maribi Arrieta eta Xabier Agirre dira, bien artean lau pertsonaia ezberdin landuz. Sarrerak 250 pezatan jarriko dira salgai igandean bertan Zabalotegin.

Bestalde, asteartean, Emakumearen Egunaren inguruan antolatutako ekitaldiekin jarraituz, Emakumearen eta gizonaren zapalketa izenburuko hitzaldia emango dute Arantxa Lasa eta Xabier Odriozolak, 7etan UNEDeko aretoan. Joan zen asteko BERRIGARAN Xabier Odriozolari egingako elkarrizketa irakurri zenutenok eta baita leitu ez zenutenek ere, martitzenean izango duzue donostiarra sakonago eza-gutzeko aukera. Era berean, Emakume Taldeen eskulanak ikusgai daude Kultur Etxean datorren datorren igandera arte, martxoak 13.

Euskaldunok dugun sexu arazoei buruzko ikuspegia ematen dute Bederen 1 taldekoek

KALEGOI, 19

☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA

BERGARA

• Zoruen kuxilatatu eta barnizaketa •

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE

MAKAILO

Makailau kazuelak

ETKEA

gertatzen ditugu

Ibargarai 15

Zigorra, borondatearen eta obligazioaren artean

Boluntarioa zerbait borondatez egiten duena da eta ez derrigorrez eta indarrez egiten duena; eta borondatea gauza bat inoren agindurik edo bultzadarik gabe aukeratzeko ahalmena da. Bi definizio horiek, gure ustez zalantza jarri ezin direnak, kontutan harturik, iruditzen zaigu Gurutze Gorriaren San Prudentzioko arduradunen deklarazioak, joan zen astean aldizkari honetan agertutakoak, konfusioa, eta ez nahi gabe sortutakoa, eragiten dutela gutxienez, Gobernuak soldaduzkarekin eta ordezkari gizarte prestazioarekin daraman linearekin bat egiten duena.

Mikel Garagorri Deba Garaiko Gurutze Gorriaren lehendakariaren hitzen arabera, badirudi intsumisoen jarreraren arrazoi bakarra gizartea hobetzeko inolako lanik egin nahi ez izatea dela. Garagorri jaunak badirudi ulertzen duela gure jokaera eta ez du gure aurkako jarrerarik azaltzen, beharbada ausartzen ez delako aurrez aurre gure aurka agertzen, gizartea orokorrean gure alde azaldu delako. Gogoratu beharko genioke intsumisoak, duten jokabidea izanda besterik gabe, badihardutela gizarte zerbitzu bat egiten, soldaduskaren kontra ezezik, gizarte libre eta berdina gozatzen eragozten duten balore batzuren kontra ere borrokatzen baitira. Eta esan behar zaio, berriz ere gogoratu behar zaio, bere deklarazioekin nagi eta insolidariorat jo nahi dituen horiek gartzelara joateko ere prest agertu izan direla.

Gu intsumisook ere prest gaude zerbitzu pila bat egiteko, baina beti ere borondatez, hitz horrek duen esanahi osoarekin. Eta ez digu inork esango guk jarrera hori hitzez bakarrik azaltzen dugunik, intsumiso pila batek praktikan agertu baitu jarrera hori hainbat organizazio eta gizarte mugimendutan lan eginez edota solidaritate kanpainetan parte hartuaz. Horren adibide hurbila herrian bertan sortu den Bosniaren Aldeko Plataforma dugu. Intsumisook partehartze handia izan dute bai sortzean, bai ondoren zabalitzean eta baita azkenik bertan egin beharreko lanak egitean. Gizarte laguntzako lan ugari egin daitezke baina askoz higienikoagoa da lanok norbere nahiari jarraiki egitea eta ez derrigortuta; obligazioak solidaritateari, kooperazioari eta altruismoari benetan duten esanahia kentzen dielako.

Hari beretik eta Juan Luis Arana Gurutze Gorriaren San Prudentzioko Koordinatzailearen deklarazioei helduta, esan beharra dugu militarrek izan dutela zerikusirik Gurutze Gorriak prestazionistak onartzeko erabakia har zezan. Objektoreak Gizarte Prestaziora soldaduskatik ihesi iristen dira. Derrigorrezko zerbitzu zibil bat ezartzen zaie bestela gartzelara joan beharko dutela mehatxu eginez. Beharbada, ez dituzte beren lanak soldaduskan egin ohi diren bezain estu eta gogorki egingo, baina militarrik eta derrigorrezko soldaduskarik ez balego Gurutze Gorriak boluntarioekin bakarrik egingo luke lan, beste giza-erakunde batzuk egin ohi duten bezala.

Amaitzeko, esan beharra dugu gutun taldean badaudela Gurutze Gorriaren San Prudentzioko postura destinatua eta haren beren zerbitzuak emateari uko egin ditzaten intsumisoak. Jarrera bera hartu duten beste batzuk bezala, beharbada laster izango duten epaiketa baten zai daude. Hala den arren, adibidez, Gorka Iglesias bergararra apirillean epaituko dutena. Beretzako kalak 2 urte, 4 hilabete eta 2 egun ezarritzen ditu.

B.O.T.A

Denok eskubide berdinala

Datorren ostegunean, hilak 10, goizeko 10.30etan epaiketa-fartsa bat izango da Bergarako Epaitegian. 11 pertsona Plazako lurra pintatzearen akusaziopeko epaituak izango dira.

Plazako lurra pintatzearen erabakia 500.000 pztako dirulaguntza duen murraren aurkako ekintza zen. Zergatik batzuk bai eta beste batzuk ez?

ADIERAZPEN ASKATASUNAREN ALDEKO PLATAFORMA

Tiira biraka



BITTOR RODRIGUEZ

◆ **Txoznak jartzeko eskaerak**

Pentekoste jaietan txoznak jarri nahi dituzten Bergarako irabaz asmorik gabeko entitate edo elkarteek beren eskaerak martxoaren 11ko ordubiak baino lehen Irizar Etxean aurkeztu beharko dituzte.

◆ **Ikastetxeak D ereduaren alde**

Angiozarko Eskola, Aranzadi Ikastola, Mariaren Lagundia Ikastola, San Martin ikastetxea eta Bergarako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzordeak triptiko bat kaleratu dute, beren haurrak matrikulatzeaz dauden gurasoei D eredia aukeratu dezaten eskatuz.

◆ **Pala txapelketa**

Asteartean bukatuko da Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako IV. Binakako Pala Txapelketarako izena emateko epea. Partaide guztiekin bilera asteartean arratsaldeko 7etan izango da Kultur Etxean. Partiduak igande goizetan Osintxuko pelotalekuan jokatu dira.



Arostegi Etxean, San Martin Plazan eta herriko bi parroketan pintadak azaldu dira.

Udal Batzordeak Kultur Ondarearen aurkako erasoak salatu ditu

Udaleko Gobernu Batzordeak "udalerriko zenbait lekutan eta bereziki San Pedro eta eta Santa Marina Parroki Elizetako horma eta atetan, Arostegi Etxeko (Udalaren egoitza gaur egun) atean eta San Martin Agirre plazan kokatutako mural piktorikoez azken egun hauetan egin diren pintadak" salatu zituen, aho batez, pasa den otsailaren 28ko bilkuran.


Gobernu Batzordeak bidalitako idatzian jasotzen denez, "aipatutako

bi Parroki Elizak eta Arostegi Etxea herriko ondare kultural aberatsaren osagarri azpimarragarriak dira (eraikin hauetako bat Momumentu kategoriarekin izendatua izan da eta beste biak hori jasotzeko bidean daude) eta pintadak nabarmenki kalteztzen dituzte, bergarar ondare kulturalaren aurkako eraso larritzat kontsideratu behar direlarik".

Era berean, Gobernu Batzordeak gogoratzen duenez, "aipatutako pin-

tadez gain iazko urtean zehar ondareari egindako hainbat pintada salatzen ditu", eta adierazten du "ondasunei egindako kalteaz gain, 1.424.600 pta.ko gastua suposatu diola Udalari".

Udalak ondare historiko artistikoen hiru elementuen aurka egindako erasoak eta erasoen egileak publikoki salatu nahi ditu, "aberastasun sentsibiltaterik eza eta Bergarako artista gazte baten obrarenganako errespeto falta demostratzen bait dute".



Orfeoia Zaragozara

Bergarako Orfeoia Egea de Los Caballerosko (Zaragoza) XXV. Aragoiko Abestien Jaialdian parte hartuko du apirilaren 10ean. Orfeoia zinta bat bidali zuen bertara lehiaketan parte hartu ahal izateko eta antolatzaileek aukeratu egin dute David Azurza tolosarrak (argazkian) zuzentzen duen taldea. Bergararrekin batera, besteak beste, Gipuzkoako beste 4 abesbatza izango dira. Orfeoia 4 abesti eskeini beharko ditu, horietako bat derrigorrezkoa. Apirilaren 9an joango dira Zaragozara eta 10ean lehiaketan parte hartuko dute. Lehen hirurek 500.000, 200.000 eta 100.000 pta.ko sariak jasoko dituzte.

◆ **11 gazteri epaiketa**

Datorren ostegunean, martxoak 10, uztailean Plazan pintada batzuk egin zituzten 11 gazteren aurkako epaiketa izango da Bergarako Epaitegian. Udalak garbiketaren 31.000 pta.k ordaintzea eskatzen die. Gai honen inguruan Adierazpen Askatasunerako Plataformak salatu duenez, *"pintada haiek Plataformaren izenean egin ziren eta jende askok parte hartu zuen horretan eta borietako 11 bakarrik auziperatu dituzte"*. Hori dela eta, mobilizazioak iragarri ditu asteazkenerako eta, era berean, kultur taldeei karta bat bidali die solidaritatea eskatuz.

◆ **Elkarriren manifestazioa**

"Distentsioa eta elkarrizketa Euskal Herrian" lemapean martxoaren 12an Elkarriren manifestazioa izango da Bilbon. Bergaratik arratsaldeko 3 t'erdietan autobusak aterako dira. Bergarako hainbat tabernatan eman daiteke izena.

◆ **Gogojardunak**

Datorren martxoaren 7tik 12ra bitartean Gogojardunak izango dira San Pedro Parrokian Imanol Aldaregia Elizbarrutiko Idazkari Orokorraren eskutik.



Partaideen adinaren arabera 6 talde bereiztuko dira.

Literatur lehiaketako oinarriak pres

Lanak apirilaren 15a baino lehen entregatu beharko dira

Bergarako Udaleko Euskara Batzordeak IX. Literatur Lehiaketa konbokatuta du Bergaran jaio, bizi edota lan egiten duten guztientzat. Lanak edozein literatur jenerotakoak izan daitezke eta adinaren arabera 6 talde izango dira: lehen taldea 1986-87an jaiotakoentzat (gehienez bi orrialde), 2. taldea 1984-85koentzat (bi orrialde), 1982-83 (2 orrialde), 1979-81 tar-tekoentzat 4.a (2-5era), 1974-78 5.a (3-8 orrialde) eta, azkenik, 1973an edo aurretik jaiotakoentzat (3tik 10era).

Partaide bakoitzak idazlanarekin 3 kopia, goitzen batekin sinatuta bidali beharko ditu, beste sorkerari txikiago batean goitzena eta barruan idazlearen datuak jarrita. Lanak Euskara Zerbitzura bidali beharko dira apirilaren 15a baino lehen. Sariak, berriz, Pazkuetakoa igandean, maiatzaren 22an, banatuko dira Zabalotegiko aretoan.

Lehen hiru taldetako lehen hirurei material didaktikoa emango zaie sari gisa eta gainontzeko kategorietan, berriz, diru sari bikoitzak jasoko dituzte lehen hirurek.

ANTIA
ARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, unxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

20 urte zure zerbitzura, kalitatezko altzariak eskaintzen

ederTU

Barrenkale, 23 ☎ 76 29 65

IBARGUREN PENTSUAK
Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.
San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Pepelu
Ileapaindegia
Zurradero, 2 behea.
☎ 76 43 07

Langabetuei zuzendutako bulego pribatua Bergaran

Lan Aukera, langabetuei irtenbidea topatzeko sortutako bulego pribatua martxan da dagoeneko Bergarako Irala Aholkularitzan. Bulego honek enpresen aholkularitza eskeintzeaz gain, lana bilatzen ari direnei (edota lanbidez aldatu nahi dutenei) lan eskeintzak luza-tzea du helburu.

Iñigo Mujika Bergarako bulego-ko arduradunaren hitzetan, "aurreko urtean estatu espainiarrean formalizatutako 5 milioi kontratuetatik INEMek 500.000 bakarrik tramitatu zituen; beraz, hor ba-dago landu daitekeen tarte".

Lan Aukera Gipuzkoa osoko 4.000 enpresarekin harremanetan dago, komertzial batek egiten dizkien bisitei esker; "baliogarri zaizkien hautagaiak eskeintzen dizkiegu, beren ezaugarriak emanaz baina izenik ezagutzera eman gabe. Ondoren enpresak elkarriketak egin eta egokiena aukeratzeko du azaldu digu Iñigo Mujikak.

Lan Aukerak Gipuzkoan dituen bulegoen bidez, lana bilatzen ari diren 10.000 lagunentzako fitxeroa (base de datos) osatu nahi du; bertan lekualdaketa, etorkizunerako perspektiba falta edota lan hobea eskuratu nahi dutenak sartuko lirarteke. Lan bila ari denak urtean 1.000



Lan Aukerak langabetuei irtenbidea topatu nahi die.

pta.ko kuota ordaintzen du; eta diru horren truke Lan Aukeraren fitxeroan sartu eta sortzen diren lan eskeintzen informazioa jasotzeko eskubidea dauka. Era berean, enpresak 15.000 eta 100.000 pta. (kualifikazio haundiko kasuetan adibidez) bitartean ordaintzen dizkio Lan Aukerari eskeinitako zerbitzu horrengatik. Mujikaren esanetan egunean batz besterik enplegu bat eta eta erdi sortzen da.

◆ Miserableak Eibarren

Bergarako Musika Eskolak martxoaren 12an Eibarreko Ipurua Kiroldegian antzetzuko duen "Miserableak" ikuskizunerako sarrerak Ariznoa eta Usoa tabernetan, Lazkano zapatadendan, Kultur Etxean edota Musika Eskolan bertan erosi daitezke 800 pta.tan (takilan 1.000).


◆ 2. perfila AEK euskaltegian

AEKko euskaltegiak goizez 2. profileko talde bat osatu nahi du. Interesatuak euskaltegira bertara jo (Masterreka 13, behe) edota 760518 telefonora deitu dezakete.

◆ Bertso paperak Antzuolan

Idolaz Antzuolako Euskara Taldeak bertso paper lehiaketa antolatu du Antzuolan jaio edo bertan bizi direnentzat. Adinaren arabera 4 talde bereiztuko dira: 10 urte artekoak (gaia: Nolakoa izan nahi zenuke haunditan?), 11-14 urte (gaia: Antzuolako alkate bazina, zer egingo zenuke?) eta 15-17 urte eta 18 urtetik gorakoak. Lanak apirilaren 11a baino lehen aurkeztu beharko dira Antzuolako Udal Euskara Zerbitzuan edo liburutegian.

TAPIZERIAK
MOKETAK
ALFONBRAK



Kruz Gallastegi, 9
☎ 76 07 37

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

LXUKLIN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA

Amets



- HERGO eta HOBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztieteko kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

Legedia

Pentsioak

- Zein da Estatu-
pentsioen sistema?

- Antolaketa banaketa-rena da, hau da, gaur egungo langile eta enpresari-aren kuotekin gaurko jubilatuei ordaintzen zaizkie pentsioak. Belaunaldien arteko errenta transferentzia deritzana hain zuzen ere.

- Eta zein da gaurko egoera?

- Ba, gerora begira, epe laburrera, jubilatuek gero eta gehiago dira (bizitza itxaropenak gora egin du) eta bestalde, langileak gutxituz doaz, langabezia haundituz doalako eta jaiotzak ere asko jeitsi direlako. Beraz gaur eguneko pentsioak mantentzea ezinezkoa da. Gaur egun Euskal Autonomi Elkartean 180.000 jubilatutakoak dira.

- Eta Europako beste herrialdeetan zein eredu jarraitzen dute?

- Europan sistema publikoek ematen dituzten pentsioak hemengoak baino txikiagoak dira. 2.700.000 pta. irabazten dituen langile bati, hemen % 88ko pentsioa pa-

sako litzaioke. Frantzia, berriz, % 45a; Suizan % 60a eta Ingalaterran % 40a.

Baina han beste osagarri batzuk dauzkate (pentsio fondoak esate baterako) eta nik uste, beste hainbat gauzatan bezala, Europako urratsak jarraituko ditugula eta pentsio publikoek



Gero eta jubilatutako gehiago eta langile gutxiago dira gaur egun.

"Pentsioak jeisten doaz eta jendeak pentsio fondoak, EPSVak... etab.ak aztertu beharko lituzke etorkizunera begira"



IÑAKI MADARIAGA
(abokatua)

behera egin eta pentsio fondoek, E.P.S.V.ek (Entidad Previsión Social Voluntaria, egindako aportazioa berreskuratze-

ko aukera ematen duten fondoak)... etab.ek gero eta garrantzi gehiago izango dute.

- Eta zein pausu eman behar dira egoera horretara heltzeko?

- Ikustekoa izango da enpresari-ek eta sindikatu-ek zer jarrera hartuko duten eta behar bada sistema osagarri horiek lan konbenioietan jasoko dituzte etorkizuneari.

Oraindik ez daukagu arrakasta haundirik behar bada tratamendu fiskala egokiena ez delako baina aurrerantzean nahi dutenentzat figura eraginkargarriagoak sortu behar dira, inbertsio fondoak esate baterako. Baina pentsio fondoak, EPSVak indartzeko tratamendu fiskala aldatu beharko litzateke.

- Jendeak prebisio-
ren bat egin behar...

- 60 urterekin jubilatzen den batek % 60a gutxietako 1967a baino behar zerbait kotizatu behar harra dauka; 40 urte dituen langile batek adibidez, jubilatzen denaren bere soldataren antzeko pentsioa mantendu nahian behar bada pentsio planen bitartean pentsatzen hasi behar du, pentsioak jeitsi behar hasiko direla kontutan hartuz. Dena den, lanbide-tzarmenetan posible litzateke pentsio fondoak jasotzea etorkizuneari.

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak
- Papel margotzak
- Mokatak eta tapizatuak

GOIERRI

Autogidarien eskola

Fraiskozuri Enparantza 5 Tfnoa: 76 41 50 BERGARA

Bergararik Txinako enpresetara

Pasa den urteko maiatzetik dihardute Soraluze kooperatibako langile taldeak Txina alderuntz joaten han makinak montatzeko. Egonaldiak gutxi gora behera bi hilabetekoak izaten dira eta hara joandako lehen bi langileak Sitxuan izeneko herrialdera joan ziren. Berau hedaturari dagokionez, Iberiar penintsula adinako da eta 130 miloi biztanle inguru ditu.

Langileak, Julian Ezenarro eta Ignacio Alberdi, 3 miloi biztanle dituen Zigong herrira joan ziren lau makina montatzera. Alberdi eta Ezenarrok hasiera baten behintzat pozik hartu zuten Txinara joateko erronka, baina Ezenarrok adierazitakoaren arabera joateaz laister damutu ziren. *"Leben inpresioa zikintasuna izan zen. Guk balkoiak egoteko edo haizea hartzeko ditugu. Han, berriz, balkoiak, etxeak dotoreak izan arren, trastez beteta zeuden. Jatekoari dagokionez oso desberdinak dira, lehenik eta behin elkar ulertzeko zailtasu-*



Juan Luis Larrañaga, Jesus Mari Gil eta Julian Ezenarro, Soraluze Kooperatibakoak Txinan pasatu dute denboraldi bat hango enpresa batean makinak montatzen.

Aspalditik dugu euskal herritarrok atzerrira joateko ohitura eta azken aldian ere asko dira lanera kanpora joan behar izaten dutenak. Horien artean daude Soraluze kooperatibako langileak. Pasa den urteko maiatzetik euren enpresak Txinarekin lortutako akordio bati esker Asiaraino joaten dira txandaka langile taldeak makinak montatzera. Lana egin bai, baina esperientzia aberatsak ere bizi izaten dituzte.

nak genituen eta adibidez letxuga bat eskatu eta belar pila ekartzen zigiten. Esan genien oilaskoa asko gustatzen zaigula, baina ban frigorifikorik

ez dutenez oilaskoa sikatu egiten dute eta gorri gorri jartzen dira eta plastikozkoak dirudite. Arrainak eta sugeak bizirik zituzten uretan.

Alberdik 14 kilo galdu zituen".

Makinak montatu bitartean langile txinatarrekin batera egiten dute lan eta Juan Luis Larrañagak,

TXURRUKA AUTOAK

Taxi eta mikrobus zerbitzua.
Ibilgailu berri eta erabilien salmenta.
Era guztietako erreparazioak.
Garbiketak, etab...

Aitz Iturri - San Lorentzo auzoa BERGARA.
☎ 76 12 36 - 76 09 30

Agentzia



PEUGEOT-TALBOT

ONENA TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA



Zigong-ko lankideekin, lantoki aurrean ateratako argazkian.

Zigongen urri inguruan egondakoak, esandakoaren arabera eurekin izaten dituzten harremanak onak dira. "Txinatarrak jende ona eta zabala dira. Harroak ere badira: lanean postu alturen bat duenak jainkotzat du bere burua".

Eguraldiaren gora beherak

Lana egiten duten bi-tartean hotel batean egoten dira eta hangoekin elkar ulertzeko interprete baten laguntza dute. "Hara joan ginenean, 3 milioitako hiri batean europar bakarrak ginen. Ge-

rora alemaniar eta frantses batzuk ere etorri ziren. Azokatik paseatzen gindoazen eta arraro ikusten genituen geure buruak".

Zigong herria Txinako erdialdean hegoalderuntz dago eta uda partean 40 gradutako tenperatura egiten badu, neguan, berriz, termometroek 10 gradu zero azpitik ere izaten dira. "Uztailean lanean kriston beroa pasatu genuen, zerbait egin eta izerditan hasten ginen. Neguan, berriz, sekulako hotza egiten zuten, izotz plakak pikatxoiekin ere ezin izaten ziren kendu. Guk kriston

hotza pasatzen genuen eta ikusten genituen langile txinatarrak normal normal zebiltzala. Lanean geundela txinatar bategen jakas jaso zizkidan eta ikusi zidanean ez ne-

ramala ezer azpitik berrituta gelditu zen. Euren praktiken eta jertseen azpitik 2 edo 3 praktika edo jertse ezberdin eramaten dituzte eta" diosku Ezenarrok.

Txina estatu komunista da, baina azken urteetan gauzak aldatzen ari dira. "Egoera zeharo aldatzen ari da. Lehen urte bertsitatea debalde zuten, orain, aldiz, estatua ari karreran zehar ordaindu behar zaio edo ondoren. Etxeak lehen estatutarenak ziren eta orain pribatizatzen hasi dira eta berdin gertatzen da tailerrekin. Toki guztietan obrak ikusten dira. Pekinera joaten bazara mundu guztiko pertsonak ikusten dira, oso okzidentalizatua dago. Handik irten eta beste mundu bat ematen du".

Kontrastez betetako herria

Jesus Mari Gil soralezearra etorri berria da.



Lanaz gain, ondo pasatzeko aukera ere izan dute. Ikusi besterik ez dago Julian Ezenarro Harresi Haundian.

"Lanean postu altua duen txinatarrak jainkotzat du bere burua"

JUAN LUIS LARRAÑAGA
SORALUCEKO LANGILEA

Txinatik eta aste bi barru berriz joan behar du. "Txinatarrek denari barre egiten diote. Behin lanean geundenean mutil bat grua gainera igo zen soldatzaileari zerbait ematera eta eskilaratik labandu eta gruatik txintxiliz geratu zen. Han zegoen mutila txintxiliz eta txino guztiak bebean farrrez lebertzen eta nik joan izan behar nuen laguntzera".

Txinako bizi baldintzei dagokienez, Larrañagak esan digunaren arabera hango hilabeteko soldata 7 mila pta. ingurukoa da. "Han guztiei heltzen zaie jatekoa, ez dago langabeziarik. Astean lanean 44 ordu ematen dituzte eta zapatu arratsaldetan eta igandetan izaten dute jai. Hala ere toki batzuetan lantegi bakoitzak jai egun bat du, bestela kallean ez dira guztiak kabitzen eta. Bazkaldu tailerretan egiten dute eta eskola ere bertan dute. Han ez dituzte guk ditugun bizioak, ez dute kotxerik eta urtean 10 egun dituzte jai. Baina kontrasteak ere badaude, telebista piztu eta EEBBtako telebista kateak ikusten dira. Horrek, Pekinen batez ere, jendearengan eragin handia du. Kalendar zehar emakumeak ilea azken modara daramate eta erropetan ere ikusten da".

Emakumea lanean

Bergaratik joandakoak gehien harritu dituen beste gauza bat txinatar emakumeak edozein lanetan ikustea izan da. "Emakumeak tailerretan gu bezela zebiltzan lanean, obretan edozein adineko emakumeak

ikusten genituen eta nabiz eta baimendua ez egon, mutikoak ere ikusten ziren lanean. Bestalde, lanean ez dute segurtasunik, tximinoen pare ibiltzen dira. Lanera kalleko erropekin joaten dira eta harrigarriena da ez zirela zikintzen" dio Larrañagak.

"Txinoek denari egiten diote barre"

JESUS MARI GIL SORALUCEkoa

Txinako egoera ikusiz hirurek esan digute ez liratekeela hara bizitzera joango. "Handik guztiok pasatu beharko genuke bilabete bat, ikusteko nola bizi garen. Orduan konturatzen zara ze paradisutan bizi garen bemen Euskal Herrian" diote.



Gure txinatarrek pelikula bat egin zuten Txinan. Errodaiaren atsedenaldi batean, EEBBko militar uniformeaz jantzita ageri zaizkigu.

Bruce Leerenak egiten

Langile hauek Txinan izan ziren bitartean lanaz aparte, pelikula bat egiteko aukera ere izan zuten, "Los ladrones tambien tienen honor" filmea hain zuzen ere. "Shangaitik Sitxuanera zine konpainia bat etorri zen eta inguruan europar bakarrak ginela eta kontratatu egin gintuzten. Pelikularen argumentoa Estatu Batuetakoak eta Japoniarrak Txinako zati bat hartu eta bertan errepublika bat sortzeko asmoa zutela zen. Gu Estatu Batuetako enbaxadako ordezkariak ginen eta lapurrak plano batzuk harrapatzera sartu eta gu hil ondoren planoak hartu eta alde egiten zuten. Errodatzerakoan txinatarrak Ninja jantzita zeuden eta hango ostikada eta algarak ez zuen atzenik. Gainera eszena bakoitza mila bider errepikatu behar izan genuen eta sekulako zartadak hartzen zituzten aktore gixajoeak. Sekulako farreak egin genituen errodatzerakoan, gure buruak Estatu Batuetako uniformeaz jantzita ikustean... eta Enrique Martinez ermuarra general eta guzti egin zuten!" dio laister Txina aldean aktore famatu izango den Ezenarrok.

hirugarren mundua

Solidaritatea

Aurtengo kurtsoan Erta-merikarekin gabilta egiten gure solidaritate kanpaina, Nikaraguarekin. Udako erropak batu, eskolarako tresneria, edozein motatako erdarazko liburuak,... eta Santa Ageda bezperan kantuan ere irten ginen. Bergarar guztiei esker 53.000 pezeta batu genituen eta oraindik gauza asko biltzen gabilta.

Jendea berez solidarioa da, ikusi baino ez dago Bosniarako ere nola ari den mugitzen, janaria, erropak, ikastolarako gauzak batuz, baina dena den begiak erne eduki behar ditugu urrutit dagoen hirugarren mundua edo gerra tartean dauden lurraldeez gain beste elkartasunerako lekuak ere gure

inguruan sortzen ari direlako, paroa eta ekonomia egoeratik batez ere.

Azken aldi honetan, poltsak atarian daudenean, noizbehinka, jendea, herrikoa, poltsetatik erropa hartzen ikusten dugu. Etxe ondoan ere beharrean daudenak ditugu, urrutiko "hirugarren munduaren" ondoan hurbileko "laugarren mundua" sortzen ari da.

Dena den solidaritate kanpaina guztietan jendeak gogo onez hartzen du parte. Gure ikastolan jarraitzen dugu oraindik udarako erropak eta erdarazko liburuak batzen, dauzkanak badaki nora ekarri.

**SOLIDARITATE
KANPAINA TALDEA**



Mariaren Lagundiko patioa ikasturte hasierarako berriztu zuten.

Lagun batek beste bat ikustean esaten jao:
- Baina zer pasau jak?
- Ikusten dok hor dauan paret hori?
- Bai.
- Ba nik ez najuan ikusi

- Zenbat zero du milioiak?
- Sei
- Eta milioi erdiak?
- Hiru.

• • •

Irakasleak ikasleari:
- Zer da anguloa?
- Anguloa..., anguloa..., a bai! angularen senarra.

• • •
- Hi bragetia itxik, bestela txorixak ihes eingo dosk eta.
- Ba, ez dok oso urrin joango arrautzak apiz lagata.

TXOUTXOULATEX

Topikoak, tipikoak?

- Epa, nun zabitz? Elementalein?
 - Ez.
 - Institutan?
 - Ezta.
 - Nun zabitz ba orduan?
 - Enseñantzan.
 - 8. mailan?
 - Ez REM eitzen.
 - Badao ala? Eskola zahar horretan! Monja sartu bihaz ala?
 - Baina zuek ez zate uniformiak in juten ala?
 - Engañau batzuk zate! Monja musua be badaukazue zuek!
 - Andereño danak monjak dia?
- Horrelako elkarrizketak askotan entzun ditugu gure lagunartean adarjote giroa dagoenean, baina baita ezezagun bat ezagutzean. Nahiz eta bergararra izan, harrigarria, ez daki uniforme eta holakoak aspaldiko kontuak direla, ez gaudela lotan, ikastolan beti ezagutu ditula mutilak eta neskek batera (badago mutilik klasian?), eta jaietan kalimotxoa edaten dugula (monjak ikusi bazaitue!!!), baina dagoeneko topikoak tipikoak egin dira, aurriritziak aldatzea asko kostatzen da.

BATXILERGO OROKORRA 2. MAILA

SNOWBOARD

Arrakasta haundia lortzen ari den kirola dugu snowboard-a. Praktikatzan duten kirolarien kopurua asko igo da azken urte honetan, izurrite bat izatera heldu arte.

Estatu Batuetan orain dela urte dexente (15 bat urte) hasi bazen ere, gure mendietara orain dela urte gutxi heldu da (4 bat urte). Hasieran surfaren influentziak izan bazituen ere orain skate-boardaren eragina argi eta garbia da.

Snowboard modalitate bi daude: *Freestyle* eta *Alpinoa*, nahiz eta kompetizioan modu gehiago azaldu.

Modalitate bakoitzean materiale desberdinak erabiltzen dira:

- **Freestylea:** Tabla arina eta malgua. Fijazio bigunak eta bota bigunak. Modalitate hau praktikatzan dutenek jakera ere desberdina erabiltzen dute. Erropa oso

haundiak (XXL) eta erosoak.

- **Alpinoa:** Taula nahiko gogorra eta ez hain malgua. Fijazio gogorrak eta bota gogorrak ere, eskiko boten antzerakoak. Taula hauek askoz ere estuagoak dira.

Material desberdinetatik aparte, kondizio fiziko bereziak ere behar dira: ajilitatea eta indarra behar dira, batez ere izterretan.

Bi modalitatetan espektakularrena *Freestylea* da. *Half-pipean* praktikatzan da, elurrezko "U" arteko bat. Bertan benetako "zorakeriak" egiten dituzte, airean egiten dituzten figura batzuen izenak hauek direlarik: *Me-twist*, *Frontside Caballerial*, *Backside hair*, *Tail-grat...* Benetan ingeleseko klase batzu behar dira auzerik hau praktikatzan hasiteko.

BOLLO SUIZIDAK

Zergatik alde egiten du jendeak asteburuetan Bergararik?

Hamabost-hogei urte bitarteko jendeak, astebukaeretan, zapatuetan gehienbat, Bergararik alde egiten du martxa bila beste herri batzuetara, Elgoibarrera, Oñatira...

Bergaran egoteko ez dago ezer. Gure edadeko jendeak denbora pasa dezan zerbait egon beharko litzateke. Poteatzera joaten bazara alkohola edan besterik ez duzu egiten, eta gauean irtenda berdin. Dena den gauez jende gehiago dabil, eta ondo pasatzeko moduko giroa nabarmentzen da, baina jende askori ez diete gure edadean gauez irtetzen lagatzen. Beraz, ondo pasatzeko kanpora joan behar.

Honekin ez dugu esan nahi hemen ere jende asko ondo pasatzen ez duenik. Hemen ambientea eginda baldin badaukate ez dago arazorik, baina beste herri batera joan eta hangoa probatu ezker, aste bukaeretan kanpora irtetzen jarraituko dute, izan ere Bergarak ez digu aukera gehiegi ematen ez ezer egiteko ezta non egoteko, zerbait edatera behartu barik.

CHEER, MEER ETA CHEEREBETON



moda-modako kirola

Itxurak zainduz


Gazteok baditugu hainbat arazo, baina kalean inportantzia haundia emoten jakona itxurarena da: kutisa (grano madarikatuak), erropa, ilea, gorpuzkera, etabar. Neskek argal xamar egon behar dabe, bular tenteak, gerri fiña, hanka luze eta lirainak eta ipurdi moñoño eta gogorrak, noski.

Mutilak senduak, gogorrak, kuadrauta, ile adatsak greñatsuak edo, hankak arkeatuta eta ipurdi ondo formautakua, gogor-gogor eginda. La ostra!!! Ez dare holako asko! Eta darenak okupatuta...

Zergatik emoten ete dotzau gorpuzkerari hainbesteko inportantzia? Gorpuzkerak zenbaiterako balio badau sexurako da, baina hori ez da dana mundu honetan. Gehixao fijau beharko ginake izakeran eta bestelako gauzetan. Txukun jantzi eta garbittu eggitten bada, majua izanda, nahikua ez? Bai, erraza da esatia, ez da?

BEI. ETA IDI.

Jubilatzen zarenean pentsiorik jasoko duzula uste duzu?




Jose Manuel Hernandez
54 urte, langabetua

Orain bertan langabezian nago, baina uste dut nere adinekoei tokatuko zaiela, oso gaizki jarri beharko lirateke gauzak ezer ez jasotzeko.



M. Jesus San Sebastian
39 urte, etxekoandrea

Martxa honetan ezer barik geratuko garela uste dut. Pentsio planen bat egin beharko dugu.



Pedro Rico
38 urte, langilea

Uste dut baietz, hemendik urte batzutara ekonomiak hobera egingo du. Ez dut pentsio plan pribaturik egiteko asmorik.



Mari Carmen Maniaga
27 urte, langilea

Bide honetatik baldin bagoaz ezer gutxi geratuko da guretzat. Gaztea naiz eta oraingo ez dut pentsio planik egiteko asmorik.



Aitor Gallastegi
31 urte, langilea

Ez dut uste guretzat dirurik egongo denik eta oraingo ez dut pentsio planik egin.



Mari Carmen Heras
33 urte, langilea

Guretzat ez da hogereko bat ere geratuko. Ez dago lanik, beraz, ez dago nork kotizatuko. Pentsio planen bat egitekotan nabil.

AGIRREBEÑA

Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29

GANBARA

Taberna

Berezitasunak:
Pintxoak eta
kafea kremarekin

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

ETXALAR

KRUASANTEGIA

Gosariak eta
meriendak

Boni Laskurain, 4 ☎ 76 50 68

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea

Bidekurutzeta 29
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5,
Tfnoa: 76 20 34

OILAGORRA
Taberna

Barrenkale 21, BERGARA



Harding versus Kerrigan

Lillehamer, 94ko joku olinpikoak. Hotz egin arren giroa bero-bero dago, emakumeen izotz gaineko patinaian urrezko domina jokoan dago eta.

Tonya Hardingen txanda da. Ikusleek txistu eta oihuz egin diote ongi-etorria.

Telebistako aurkezlea Julian Lagori konpetentzia egin nahian "kirol komentarioak" egiten hasten da: "amak txikitan jo egiten zuen, bere anai-arrebak sei aita ezberdinenak dira, Tonya bera bananduta dago... etab, etab."

Ah! Entrenamendu bakoitzaren ostean zigarro mordoa erretzen du eta amerikarrek gorrotatu egiten dute. Lehiakideek zer esanik ez!

Beste bi parte hartzailearen ostean Nancy Kerrigan azaltzen da. "Kirol aurkezlearen" hitzak hauek dira: "ama guztiek maite duten alaba eredu, senide guztien (anai-arreba, osaba, iloba...) babesa eta maitasuna du. 20 emakumerik ederrenen artean dago, amerikarren ametsa... bla bla bla".

Hardingek Kerriganen aurka prestatutako erasoak komunikabideetan eragina izan du eta hauen inguruan kirola ez den guztia bihurtu dute albiste.

Beharbada amerikarrak izan ez balira ez zen halakorik gertatuko; konturatu al zara? emakumeak dira. Kasualitatez bat polita eta bestea ez; bat pobrea eta bestea aberatsa.

Jone LARRAÑAGA



Bitartekaritza

Datorren astelehenean Bilboko Epaitegi Gorenean Jose Mari Elosua "Porte" abokatuaren aurkakako epaiketa hasiko da. Hamar epailek zumaia legegizon honek Emiliano Revillaren bahiketa zela eta haren senidearen izenean egin zituen lan eta jestioak ETA erakundearen partaide bihurtu ote zuten aztertu eta, honekin batera, bitartekarien lana epaituko dute.

Elosuak bete du, jadanik, urtebeteko espetxe zigorra inork epaitu aurretik Bueren epaileak horrela nahi izan zuelako, baina Elosuaren kasua ez da pertsona baten arazoa edota euskal abokatu abertzaleen aurkako epaiketa bakarrik. Elosuarekin, lehen Reizabalekin egin zuten bezala, bitartekaritza bera epaitu eta zigortu nahi da. Munduko bazter guztietan arazoak -hemengoak baino larriagoak direnak ere- konponitzeko bidean bitartekaritza gorai patzen den une honetan, espainiar agintariek lan horretan buru-belarri, inolako interes pertsonalik gabe, ibili direnak espetxeratu nahi dituztela ohartzeak agintari hauen auserdia falta eta bakerako borondate eza erakusten digu, argi eta garbi.

Edozein kasutan mezularia hil nahian dabilena bide okerretik dabilela luze baino lehen argi geratuko delakoan antzerako zerbait pentsatu beharko lukete gure herriko agintari hurbilenek ere EGINekiko hartu duten erabaki zoroa ildo beretik doa eta.

Martin GARITANO

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374 - 55

BERGARA

TXISTU MOTOR

**KOTXE BERRIZKETAK
SKODA ZERBITZU BERRIA**



Volkswagen taldea

Aribar Poligonoa. San Juan auzoa
☎ 76 09 31 BERGARA



**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi, 2 ☎ 76 00 50



Ezkerretik eskumara De Pedro, Alberdi, Zenitani eta Azkargorta. Bergararrek Diputazioaren laguntza izan dute.

Japonen erakusketa

Ricardo Azkargorta eta **Bingen De Pedro** bergararrak, **Pello Alberdi** eta Elgetan bizi den **Yoshitatsu Zenitani** japoniarrek margo erakusketa kolektibo bat egingo dute Japoneko hainbat hiritan datozen 3 hilabeteetan. Dagoeneko erakusketa honetako 40 koadroak Japon aldera bidali dituzte eta Kobe (datorren astetik) eta Osaka (apirila eta maiatzean) hirietan egongo dira ikusgai. Lanak hara bidaltzeko milioi erdi pta. inguruko kostoa izan du eta Japonera Zenitani joango da bakarrik erakusketa koordinatzeko asmoz.

Gaztetxea husten

Gaztetxean zeuden materialak atera egin zituzten pasa den astean. Gaztetxea itxi zutenetik bertan geratu eta oraindik baliogarri diren hainbat gauza atera eta Toki-Ederreko udal lokaletara eraman ziren. Besteak beste, barra, musika ekipoa, aukiak, mahaiak... etab luze bat bertan gordeta geratu dira. Etorkizunean material guzti hori beren jabeei bueltatzeko asmoa dago.



INFERNUKUA TABERNA

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49



Zuzendaritza berria

Aritzeta Abesbatzak datozen bi urtetarako zuzendaritza aukeratu berri du. Ainhoa Arbelaitz presidentea izango da eta berarekin batera Maite Irizar (idazkaria), Xabier Alzola (publizitatea) eta Eider Landa eta Mikel Larrañagak (partituren antolaketa) lan egingo dute. Izaskun Labaienek zuzendu eta 40 lagunez osatuta dagoen abesbatzak, epe laburrera, kanpora bidaltzeko zinta bat grabatu eta ahal diren interkanbioetan parte hartzeko asmoa du. Zinta osatuko duten 17-20 abestiak errepasatzen ari dira Aritzetakoak.



Ezkerretik eskumara Izaskun Labaien, Ainhoa Arbelaitz, Maite Irizar, Xabier Alzola eta Eider Landa.

Zertan dibardute ba?



Alazne Irazabal

28 urteko bergararrak omenalditxo bat jasoko du asteartean 6 t'erdietan Kultur Etxean, Emakume Taldeen Eskulan Taldeak beraiekin azken 4 urtetan egindako lana eskertu nahi baitio. Alazne Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuko arduraduna izan genuen eta gaur egun Mizpirualde Erresidentziako gizarte laguntzailea da. Alazneren hitzetan, "Emakumearen Zerbitzuan sartu nintzenean, 1990eko ekainean, yoga edota eskulanean taldeak jarri genituen martxan eta oraindik ere hor daude, erantzun onarekin gainera". Asteartean, Emakumearen Egunean, plaka oroigarri bat eta lora batzuk jasoko ditu errekonozimendu gisa.

Ongizate Diputatua bisitan

Elvira Kortajarena Gizarte Ongizate Diputatua Bergaran izan zen asteazkenean. Alvaro Esparza eta Javier Cendoya zinegotzien laguntzaz, besteak beste, Mizpirualde eta Jubilatuen Egoitzak bisitatu zituen. Gaur egun Diputazioak 133 milioi pta.ko dirulaguntza ematen dio Bergarako Ongizate Batzordeari. Era berean, etxeko zerbitzuaren aurrekontuak 17 milioitik 33ra egin du gora Esparzaren hitzetan.



Mizpirualde Egoitzan izandako bilerako argazkia.

KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

PANADEROKUA

MUJIKKA

Burdinaki denda

Bidekurutzeta 8

☎ 76 28 67


BERGARA

Andres Díez Timofeva

Karteroa eta xake-jokalaria

Andres Díez Timofevak 13 urte daramatza kartero. Donostian jaioa, aita bergararra eta ama errusiarra du. 7 urtekin xakean jokatzeko ikasi zuen eta preferente mailan ari da jokatzeko.

- Udako postalak ala Gabonetako zorion agurrak?
- Udako postalak.
- Zenbat bider deitu behar izaten du karteroak?
- Pufffff! Auskalo!!
- Telegramak berri onak ala txarrak dakartzate?
- Txarrak.
- Azken gutuna nori bidali diozu?
- Nere gurasoei, soldadutzan nengoela, dirua eskatuz.
- Karpov ala Kasparov?
- Karpov.
- Pieza txuriak ala beltzak?
- Berdin zait.
- Konzentratzeko zein metodo?
- Batere ez.



"Azken gutuna neure gurasoei bidali nien soldadutzan nengoela. Errepublika independenteak baino URSS bateratua nahiago nuke eta nire hobbia geologia da; geologo izatea gustatuko litzaidake"

- Defentsa ala atakea?
- Atakea.
- Judit Polgarrek irabaziko al du inoiz Munduko Txapelketa?
- Oraingoz ez, baina ez emakumea delako.
- Nori gustatuko litzaizuke jake-matea egitea?
- Kapitalismoari.
- URSS bateratua ala errepublika independenteak?
- Bateratua.
- Errusia ala Euskal Herria?
- Euskal Herria.
- Harding ala Kerrigan?
- Batere ez.
- Nork irabaziko du futbol liga?
- Ez dakit nola doan...
- Amets bat.
- Zoriontsu bizi izatea.
- Hobby bat.
- Geologia.
- Irakurri duzun azken liburua.
- Frases de Gandhi.
- Egin duzun azken oparia.
- Irrati emisora bat neure buruari.
- Emakumearen Eguna ospatuko duzu?
- Bai, lagunekin afari bat eginaz.
- Posterrik baduzu zure logelan?
- Ez.
- Defektu eta birtute bat.
- Nahiko burugogorra naiz. Eta birtutea besteek esan behar, baina neure buruaz nahiko kontzeptu ona daukat.



DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA


Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behe. ☎ 76 21 80 - 76 06 37

Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behe
☎ 76 59 54 BERGARA



POL-POL

TABERNA

☎ 76 07 7

DEPORTIVO


TABERNA

☎ 76 01 51

BONOFOTOA



M. A. ELKOROBEBIZAR



Antonio Agirre

ANTONIO AGIRREk irabazi du aste honetan BONOFOTOko saria. Aurreko BONOFOTOko galdera berak asmatu du, hain zuzen ere BONOFOTOAn agertzen zen baserriaren izena galdetzen genuen eta erantzuna, San Josepe zen. Erantzun asko jaso ditugu eta **Antoniori** tokatu zaio oraingoan. Berak eskuratu ditu sariko **10.000** pezetak. **ZORIONAK Antonio**, eta besteek segi jokatzeko saria lortu arte. Suerte!!

Zein da ziztalan eta erliebe eder hauek dauzkan XV. mendeko etxe honen izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria:
10.000 Pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA

HAUR HEZKUNTZA

(2-16 urte)

LEHEN HEZKUNTZA

(6-12 urte)

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

(12-16 urte, OHOkoko 7. eta 8.a eta B.O.ko 1. eta 2. mailak)

LANBIDE HEZIKETA II - SANITARIOA



1. D eredu. 4. mailatik aurrera B eredu ere ba
2. Laguntza (ama-hizkuntza gaztelera dutenentz
3. Musika eta Ingelesa 3. mailatik aurrera.
4. Ikasle bakoitzarekiko arreta.
5. Laguntza-gela
6. Teknologia eta informatika
7. Ikerketa metodologia
8. Ikasle bakoitzaren arabera orientazio eskolar zein profesionala.

DERRIGOREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH)

Irakaskuntzaren erreformari aurrea hartuz, ikastola honek azken sei urteetan urratsak ematen dihardu DBH ezarriz eta oraingo OHOkoko 7. eta 8. mailan eta BO edo REMeko 1. eta 2. mailak batuz, hau da, 12 eta 16 urte bitarteko derrigorrezko irakaskuntza bateratuz.

IZENA EMATEKO EPEA: Martxoaren 1etik 14ra.

MATRIKULATZEKO EPEA: Apirilaren 15etik 22ra

MATRIKULA DOAN

Mariaren Lagundia Ikastola. Espaloia, 1

20.570 BERGARA (Gipuzkoa)

Tfnoa: (943) 76 25 41

ZERBITZUAK

- Jangela zerbitzua
- Eguerditan haurtzaindegia
 - Kiroletarako zelaiak
 - Gimnasioa eta frontoia
 - Ikasleentzat egoitza
- Ekintza extraeskolarrak
 - Liburutegia
 - Gurasoen eskola



KIROL EMAITZAK

FUTBOLA

- Prefente maila:
Hondarribi 0-Bergara 0
- Lehen Erregionala:
Bergara 2-Tolosaldea 0
- Lehen mailako jubenila:
Zestoa 2-Bergara 8
- 2. mailako jubenila
Bergara 0-Gazteak 3
- Lehen mailako kadetea:
Bergara 4-Aloña Mendi 0
- 2. mailako kadetea:
Intxurne 2-Bergara 2
- Lehen mailako infantila
Bergara 4-Soraluze 2

ESKUBALOIA

- Senior mutilak:
Bergara 23-Arrasate 12
- Jubenil neskek:
Pulpo 13-Bergaran 7
- Kadete neskek
Bergara 16-Leitzarar 14

SASKIBALOIA

- Jubenil mutilak:
Bergara 73-Askatuak 43
- Infantil mutilak:
San Viator 41-Aranzadi 37

XAKEA

- Lehen maila
Altzakoak 2-Bergara 2

PELOTA

- Jubenilak binaka:
Gernika 22-Bergara 19
- Jubenilak banaka:
Zaramaga 10-Bergara 18
Bergara 18-Osasuna 11




Aragzian Aranzadi Ikastolako saskibaloitza. Alex Familiarren taldeak Gipuzkoako Txapelketako azken fasean sartzea du helburu.

Herriko saskibaloitza fin

Aurtengo denboraldian jokatzen ari diren herriko hiru saskibaloitza taldeak sailkapeneko lehen postuetan ditugu

Bergara K.E.ko saskibaloitza taldeak denboraldi bikaina egiten ari dira. Jose Ignacio Familiar eta Jesus Mari Etxanizek zuzentzen duten jubenil mutilen taldea lehen mailako 3. postuan ari da; nesken kadete taldea, berriz, Ramon Conde eta Javi Pizarro entrenatzaileen eskutik, igoera fasea ari da jokatzen eta larunbat honetan partidua erabakiorra jokatuko du Bergarako Kirolegian Maryward taldearen aurka. Partidua goizeko 11etan jokatuko da eta partidua honetan bergararrek garaipena guztiz beharrezkoa dute. Azkenik, Aranzadi Ikastolako taldea Gipuzkoako Txapelketarako fasean bigarren doa eta Alex Familiarrek

entrenatzen duen taldeak Gasteizko San Viator bere zuzeneko etsaiaren aurka oso partidua garrantzitsua jokatuko du hiru aste barru. Gogoratu dezagun, aurreko denboraldian saskibaloitza sei talde zirela Bergaran eta aurtun, berriz, hiru besterik ez. Dena den, saskibaloitza arduradunen asmoa hurrengo denboraldian gizonetako nagusien taldea berriz ere osatzea litzateke. Oraindik ere badira jokatuko ilusioa duten maila oneko harrobiko jokalariek eta kirol hau gure herrian aurrera ateratzearen alde gogor, astero-astero, lan egiten duten entrenatzaileak. Emaitzak heldu daude.



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF SERVICE-A

Barrenkale 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA



☎ 76 20 61

1. maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	Golak alde	Golak aurka
1. Madura	24	12	12	0	0	51	13
2. Errotagain	23	12	11	1	0	66	17
3. Bildurbarek LAM	18	12	9	0	3	63	48
4. Toki Eder	17	12	8	1	3	70	30
5. Angiozar	15	12	6	3	3	57	34
6. Mongatxurra	15	12	7	1	4	50	28
7. Bar Canalejas	13	12	5	3	4	35	37
8. Arloteak	13	12	5	3	4	37	43
9. Usoa	12	12	5	2	4	37	38
10. Ezinleike	11	12	4	3	5	36	48
11. Os Jardineiros	10	12	4	2	6	48	58
12. Ogizun Okind.	9	12	3	3	6	36	44
13. Guadalest	9	12	3	3	6	26	45
14. Soropotroak	8	12	4	0	8	36	43
15. Nahikari Hool.	8	12	3	2	7	28	39
16. Kriston Potruak	7	12	3	2	7	50	56
17. Kriterium	7	12	3	2	7	30	43
18. Shaktale	7	12	3	1	8	27	66
19. OH Zerezos	6	12	3	1	8	36	59
20. Akort Ariznoa	6	12	2	2	8	38	65

2. maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	Golak alde	Golak aurka
1. Arkupe	31	18	15	1	2	95	43
2. Kalimotxo	30	18	15	0	3	89	40
3. Hartu Zamak	29	18	14	1	3	89	54
4. Ufala	29	18	14	1	3	97	44
5. Etxagi	29	18	14	2	2	118	53
6. Ozaeta	28	18	13	2	3	110	42
7. Revienta	28	18	14	0	4	74	48
8. Eri	24	18	11	2	5	95	57
9. Ube Bikoitza	22	18	10	2	6	88	68
10. Ari Ari	20	18	10	0	8	80	81
11. Amozkibar	19	17	9	1	7	69	47
12. Igandekoak	16	17	8	0	9	60	68
13. Krai	16	17	8	0	9	78	71
14. Txipiron	16	18	6	4	8	52	63
15. Paok San Juan	15	17	7	2	8	52	50
16. Matalascañas	15	18	7	2	9	50	59
17. Kirolzaleak	15	17	7	1	9	65	80
18. Egoki	14	17	6	2	9	69	86
19. Labegaraieta	13	18	5	3	10	37	90
20. Aldoka Maldoka	12	17	5	2	10	41	73
21. Pata Negra	11	18	5	1	12	52	96
22. Los Txupeta	10	18	4	2	12	44	69
23. EH Biterrak	9	18	3	3	12	44	79
24. Eusebio II	6	17	3	0	14	45	102
25. K.K. Usaina	0	17	0	0	17	36	136

emaitzak

Ogizun 9 5 Akort Ariznoa

hurrengo partiduak

• LARUNBATA •
barruan

09.00: Kriterium-Ogizun Okindegia

• IGANDEA •
barruan

09.00: Soropotroak-Madura

10.00: OH Zerezos-Angiozar

11.00: Kriston Potruak-Mongatxurra

12.00: Usoa-Bar Canalejas

13.00: Arloteak-Errotagain

16.00: Os Jardineiros-Nahikari Hooligans

17.00: Shaktale-Tokieder

18.00: Guadalest-Bildurbarek LAM

19.00: Ezinleike-Akort Ariznoa

golegileak

1. Fernando Salinero (Ogizun) 29 gol
2. Iñigo Pagaldai (Angiozar) 23 gol
3. Iñaki Mujika (Tokieder) 19 gol
4. Bittor Jimenez (Kriston Potruak). 18 gol
5. Aitor Anton (Errotagain) 17 gol

emaitzak

Labegaraieta	0 2	P. de San Juan
Hartu Zamak	3 9	La Txupeta
Amozkibar	2 4	Ufala
Eri	18 3	KK Usaina
Igandekoak	0 7	Ari Ari
Krai	10 5	Pata Negra
Arkupe	2 4	Kirolzaleak
Eusebio II	9 5	Matalascañas
Ozaeta	8 1	Aldoka Maldoka
Uve Bikoitza	3 4	Revienta
EH Biterrak	0 18	Kalimotxo
Etxagi	21 5	Egoki

hurrengo partiduak

• LARUNBATA •
kanpoan

09.00: Labegaraieta-Eri

10.00: Krai-Revienta

11.00: Arkupe-La Txupeta

12.00: Ozaeta-Paok de San Juan

13.00: Igandekoak-Egoki

• IGANDEA •
kanpoan

09.00: EH Biterrak-Txipiron

10.00: Ufala-Ari Ari

11.00: Amozkibar-Kalimotxo

12.00: Etxagi-Pata Negra

13.00: Eusebio II-KK Usaina

Txinpartak

▼ Udaberria bertan daukagula eta, aurrerantzean partiduak barruan eta kanpoan jokatzea erabaki du Antolaketa Batzordeak. Horrela, bada, aste honetatik aurrera lehen eta bigarren mailako taldeek jokatuko dituzte partiduak, hau da, talde gehienek astero astero jokatzeko aukera izango dute.

▼ Joan zen asteko jardunaldian gol mordoia ikusteko aukera izan zuten Labegaraietara hurbildu zirenek. Finibilli ziren bigarren mailako taldeak eta finago oraindik aurrelariak. Erik 18 gol sartu zizkion KK Usaina faroltxo gorriari, Kalimotxok beste hainbeste sartu zituen EH Biterrak taldearen sareetan eta Etxagik, 21 gol sartu zizkion Egoki taldeari. Partidu honetan 26 gol sartu ziren eta Juantxo Izuskizak (Etxagi) 10 sartu zituen. Fernando Salinero (Ogizun Okindegia), berriz, 8 gol sartu zituen Akort Ariznoaren kontrako partiduan (jokatu zen lehen mailako partidu bakarra) eta Joseba Larrañagak (Eri) 6 gol.

▼ Txapelketan ari diren 45 taldeetatik partidu guztiak irabazi dituen bakarra Madura dugu.

KIROL KARTELDEGIA

FUTBOLA

- Bergara-Tolosaldea (Lehen Erregionala) Igandea, 16.30, Ipintza.
- Bergara-Gazteak (2. mailako jubenilak) Larunbata, 17.30, Ipintza.
- Bergara-Aloña Mendi (Lehen mailako kadeteak) Larunbata, 15.30, Ipintza.
- Bergara-Soraluze (Lehen mailako infantilak) Igandea, 11.00, Ipintza.

SASKIBALOIA

- Bergara-Maryward (Kadete neskek) Larunbata, 11.00.
- Aranzadi-Aloña Mendi. (Infantil mutilak) Larunbata, 12.30. Biak Labegaraietan.

XAKEA

- Bergara-San Andres Larunbata, 16.00. Zabalotegin.

PELOTA

- Afizionatuak - Bergara-Soraluze Deba Arroa. Ostirala, 23.00. Bergara-Sanesteban (binaka) Bergara-Berango (banaka) Euskal Liga. Igandea, 11.00.
- Profesionalak -
- Ansoategi eta Oliden / Lejardi eta Balerdi
- Etxaniz eta Aldazabal II / Eugi eta Errasti
- Alberdi III / Errasti II (2. mailako banakako Txapelketako partidua) Larunbata, 16.30. Udal Pelotalekua.



Bergara K.E. ko nesken futbol taldeak hurrengo denboraldian Liga Regionalean parte hartu nahi du.

Nesken futbol taldea Bergaran

Aspalditik dator Bergaran emakumeen futbol talde bat sortzeko ideia. Bittor Agirrebarrena eta Felix Barrocalek ideia horri eutsi eta 33 laguneko taldea osatu dute. Bittorrek komentatzen digunez, "orain 7-8 urte lehen saiakarak egin ziren baina azkenean ez zen taldea ofizialki eratu. Orain 3 urte, berriz, Mondragon eta Eibartarrak taldeen arteko nesken futbol partidua ikustean erabat txundituta geratu nintzen zein ondo jokatzeko zuten eta Bergaran talde bat osatzeko ideia komentatzen hasi ginen lagunartean".

Erantzuna ezinhoba izan da eta guztira, 16 ur-

retik 21era urtera bitarteko (gehienak 17 urtekoak) Bergara eta Soraluzeko 33 neska ari dira Felix eta Bittorren agindutara astero entrenatzen.

Hurrengo denboraldian Emakumeen Liga Regionalean parte hartzeko asmoa dute eta Bittorrek esaten duen moduan, "ilusioa eta jokatzeko gogo izugarria daukate eta ikusi behar zer nolako emaitzak lortzen diren. Oraingoz lagunarteko partidua bakar bat jokatu dugu eta bina berdindu genuen Oñatin liga jokatzeko ari den Aloña Mendiren aurka".

Ligan parte hartu ezkerro Lasarte, Arrasate, Aretxabaleta, Donosti,

Zarautz edota Lesakako taldeen aurka jokatu behar harko luke Bergarak. "Hori bai, 25 fitxa bakarrik egiteko aukera izango genuke. Orainarteko entrenamenduetara behintzat ia denak etorri dira eta plantilan 3 atezain eta 30 jokalaridau-de".

Jokalariek dagoeneko Uxue Lazkano (16 urte) aukeratu dute taldeko kapitaina. Helburu nagusia lehenbaitlehen Bergaran lagunarteko partidua bat jokatzeko litzateke, jendeak taldea ezagutzeko aukera izan dezan. Bien bitartean entrenatzaile eta jokalariek lanean darrate etorkizuneari beren maila azaltzeko.

Iletxo

Ileapaindegia mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Doktorea, 7 ☎ 76 53 15
20570 BERGARA

Usoa Pub



Tfnoa: 76 38 57
Irala 1

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA



Aste Santuko Eguakoitz Santuko prozesioa

Bergarar askok eta askok nekez antzemango lukete argazki hau Bergarakoa denik ere. Ba bai, halaxe da; aspalditxokoa da (hirurogeita hamar bat urte bai) baina Bergara agertzen zaigu: atzean Santa Marina, eskumaldean orain Oregiren txaleta dagoen lursaila eta ezker aldean orain Usondo-ko parkea dagoen tokia; han atzean, agertzen den etxe zuria, berriz, Irizar jauregia.

Prozesioa San Pedron irten eta Santa Marinara joaten zen; gero handik, Etxeaurdi ondotik, Zubietako zubitik zehar Masterrekara joan ohi zen Monja Zaharretan geldialdi bat egin ondoren San Pedrora bueltatzeko.


Andero doazen bi abadeak Don Santiago Gabilondo, ezkerrekoa, eta Don Pedro Mujika, eskumakoa, dira. Ezker aldean doazen bi pertsona nagusiak aurrekoa Luzio Zabaleta eta atzekoa "Maura" izeneko bat. Don Pedro Mujikaren ondoan doan gizon buruzuria Francisco Peña da eta bere atzean doan gaztea Isidro Monzon.

Estepan Plazaola

LAKET

Gizon Emakume

Barrenkale 35 BERGARA



LASA

Jatetxea

Bidekurutzeta 36, ☎ 76 10 55 / 76 20 29

ETXEBIZITZA

Garajea (2 plaza) hartuko nuke **alokairuan** herri erdian. ☎ 76 20 46 (Pablo).

Etxebizitza salgai Iparragirre kalean. ☎ 76 40 82.

Etxea salgai Martokon. ☎ 76 00 93.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

Pisua salgai Zubiaurren. ☎ 76 25 19.

Berrizitutako **pisua** salgai. 55 m2. Ganbararekin (35 m2). ☎ 76 02 13 (goizez).

Pisu amueblatua salgai Artekale 16an. ☎ 76 12 81.

Etxea salgai Katabian. ☎ 76 53 30.

Garajea salgai Iparragirren. ☎ 76 28 52.

Pisua salgai Zabalotegi Torreon (17. pisua). ☎ 76 33 19 (gauzez).

Apartamentu zentrikoa alokatzen da Culleran. Maiatza, ekaina, uztaila eta iraila. ☎ 76 59 71.

Pisu amueblatua salgai Bolun. ☎ 761075 (gauzez).

Garajea salgai Bolun. ☎ 76 39 33 (arratsaldez).

Garajea salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Garajea salgai Ibargarrain. ☎ 76 36 69.

Pisua alokatzen da. Bulegoak jartzeko egokia. ☎ 76 16 89.

DENETARIK

Alfa 33 kotxea salgai. Kilometro gutxi. Egoera onean. ☎ 76 02 01.

Talbot Samba (SS-S) salgai. 50.000 pta. ☎ 76 45 81.

Nintendo bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

Baserri bat hartuko nuke ☎ 76 62 64 (Imanol).

Peugeot 205 GTX kotxea salgai (SS-X). ☎ 76 09 05.

Petrikilo, masajista eta karta-aztia. ☎ 76 47 24 (Gonzalo).

Golf 4X4 kotxea salgai. 2 urte. ☎ 76 47 57 (gauzez).

Onix motorra (50 cc.) ia berria salgai. ☎ 76 43 37 (Aner).

Sega Megadrive kotsola salgai. 2 jokurekin. 19.000 pta. ☎ 76 25 12 (Astebukaeretan deitu).

Nissan Vanettea prezio onean salgai. ☎ 644767.

Subijanaren sukaldaritza liburua eta 6 bideo (7.000 pta.) eta konpetiziozko patin botak (5.000) salgai ☎ 761968.

Kanpin denda haundia salgai (45.000 pta.) ☎ 76 26 73 (gauzez).

Renault 21 TXE bat salgai. 1988koa. ☎ 763868.

Artzai txakur bat galdu da. ☎ 76 27 90.

Mendi bizikleta salgai. Cannondale XT.150.000 pta. ☎ 781858 (Jose Mari).

Mendiko bizikletako **zapatilak** salgai. Oparia: kaskoa. ☎ 76 37 29 (Martin).

Butanozko Mepamsa estufa salgai. ☎ 76 01 13.

Peltz eskalada ekipoa salgai. ☎ 76 18 94.

LANA

Gutxitu sikiko, elbarri edota **zaharrak** zainduko nituzke. ☎ 76 53 25.

Ingeles klaseak ematen ditut (Arantxa). ☎ 76 42 36.

Pertsona zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

Propaganda banatuko nuke. ☎ 76 40 94 (Jaime).

Ingeles Filolojian lizentziatuak, ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 17 36.

Ingelesezko klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 50 38 (Ines).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Emakume batek **etxeko lanak** edota **haurrak** zainduko lituzke. ☎ 76 27 24 (Dolores).

Matematika eta fisika klaseak. ☎ 761093 (Asier).

Latin, Euskara eta Frantses **klaseak**. ☎ 76 02 99.

Hildakoak

Pedro Fernández Eraña
otsailak 24, 67 urte

Juan Larrañaga Lonbide
otsailak 25, 81 urte

Sor Josefa Luisa Murgiondo Arriaran
otsailak 27, 97 urte

Jaiotakoak

Xabier Labaka Aldekoa
otsailak 24

Aitor De Benito Obeso
otsailak 24

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ZUBIETA

elektragintza

- ✓ Motorren bobinaketa
 - ✓ Era guztietako instalakuntzak
- Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



STETIKA ZENTRUA

AURPEGIRAKO TRATAMENDUAK, ZIMURREN
KONTRAKO TRATAMENDUA, LIFTING-A, LASERRA,
AURPEGI ETA GORPUTZAREN GARBIKETA...

**LARUNBAT ARRATSALDEAN
INAUGURATUKO DUGU.
LUNTXA IZANGO DA**

Ameto

ESTETIKA ZENTRU BERRIA

Masterreka, 19 behea Tfnoa: 76 46 53

**ASTELEHENETIK AURRERA ZABALIK
ZABALIK EGUN OSOAN (9.00-22.00)
KONTSULTA EGIGUZU**

GIZENTASUNA (TRATAMENDU ORGANUTERAPIKOA),
ZELULITISA (LIPOSUZIOA) MEDIZINA ETA ZIRUJIA
ESTETIKOA, BARIZE ZIRUJIA...

MEDIKU GABINETE